

Oscar sariak

JATORRIZKO GIDOI ONENA
American Beauty

EGOKITUTAKO GIDOI ONENA
The Cider House Rules

ARGAZKI ONENA
American Beauty

MUNTAIA ONENA
The Matrix

MUSIKA ONENA
The red violin

JATORRIZKO KANTA ONENA
Tarzan

ZUZENDARI ARTISTIKO ONENA
Sleepy Hollow

INGELESEZ BESTEKO FILMA
Todo sobre mi madre

EFEKTU BISUAL ONENAK
The Matrix

Film onena

Zuzendari onena

Emakumezko
aktore onena



American Beauty

Sam Mendes
(*American Beauty*)

Hillary Swank
(*Boys don't cry*)

5
American Beauty
oscar

4
Matrix
oscar

2
The cider house rules
oscar

Espero zena bete da Oscarren gauean

'*American Beauty*'-k bost sari jaso ditu, film, zuzendari eta gizonezko aktore onenaren sariak barne

Agentziak / Los Angeles

THE WALL STREET JOURNAL egunkariak egun batzuk lehena kaleratutako inkesta polemiko hartako izen gehientsuenak entzun ziren atzo gauean Los Angelesen (Atzo goiza Euskal Herrian). Ez zen kasik sorpresarik izan Oscar sarien gau handian. Egunkari horrek Holywoodeko hainbat akademikori egindako galdeketa txinpartak piztu zituen zinematogantza kideen artean, sarien irabazleak isilpean gorde behar direlako araua hautsi zutela eta.

Polemikak polemika, *American Beauty* filma izan zen, espero zen bezala, garaile nagusia, bost Oscar bereganatuta. Sam Mendesez zuzendaritza saria eta Kevin Spaceyrek gizonezko aktore onenaren saria jaso zuten. Spaceyrena izan zen inkesta polemiko horrek asmatu ez zuen sari bakarra, Denzel Washingtonek jasoko zuela esaten baitzuen. Argazki onena eta gidoi orijinal onena ere *American Beauty*-k jaso zituen.

Bestalde, bigarren garailea *The Matrix* lana izan zen, lau oscarrekin: efektu berezi, soinu, soinu efektuen muntaia, eta muntaia onenaren Oscarren hain zuzen.

Hilary Swank gazteak eskuratu zuen emakume

onenaren Oscarra, *Boys Don't Cry* filmean egindako lanagatik.

Gaua luzea izan zen Los Angelesen, ekitaldia mantsoa bezain ohikoa izan baitzen. Une txalotuenetako bat Michael Caine izena esatearekin batera iritsi zen. Gizonezko bigarren mailako aktore onenaren saria jaso zuen *The Cider House Rules* filmean egindako lanagatik. Txalok ez ezik txistuak ere jaso zituen Caine, filmean ez ezik oholztan ere abortuaren aldeko aldarria egiteagatik. Hainbat sariren artean, aipatze-

koa da *The Cider House Rules* filmaren jatorrizko testuaren egile eta filmaren egokitzapena egin duen John Irving idazleak jasotako saria.

Ingelesezt besteko filmari emaniko Oscarra, berriz, Pedro Almodovarrek eskuratu zuen *Todo sobre mi madre* filmagatik.

Ohorezko Oscarra Andrej Wadja zuzendariak jaso zuen, eta poloniarrez eman zituen esker onak.

Azkenik, Warren Beatty Thalberg saria jaso zuen, produktore gisa egin ibilbideagatik.

The Sixth Sense finak soil-soilik ekarri du suspentsea Shrine Auditoriumera. Ez da ezusterik izan. Ezuste bakarrik —Hillary Swank aktorearena kasu— atseginak izan dira. Epaimahaiak banatu dituen sariak zuzenak izan direla aitortu beharra dago. Gustu zinematografikoak beti dira erlatiboak eta hainbat erabaki ñabartu daitekeen arren, salatze moduko injustiziarik egon ez dela azpimarra daiteke.

David Lynch zinema zuzendariaren *The Straight Story* ederra filmik onenaren sarirako ez izendatu izana da Akademiaren bekatu

Haize berriak

Iñaki Lazkano

bakarra. Baina David Lynch-en maisulana —Fidel Castrok esandakoa paraperpaustuz— zinemaren historiak absolbituko du. Ziur egon.

Izendatutakoen artean, espero zen bezala, *American Beauty* izan da garaile nagusia. Sasi-kazetaritxo zenbait *Matrix* efektistak baino sari bat gehiago erdietsi duela bakarrik aldarrikatu ko badu ere, bere garaipena eztabaida ezina da kualitati-



HECTOR MATA / AP

Oscarrak eskuan, gustura. Elkarri helduz dastatu zuten atzo Angelina Jolie eta Hillary Swank Oscar saria. Jolie bigarren mailako aktore onenaren saria jaso zuen, eta Swank berriz, aktore onenarena.

egokitu zaigu oraingo honetan. Akademiak ez du saritu emakume haurdunik, hiltze dagoen agurrik edo zinema izar kuttunik; John Irving idazlearen abortuaren aldeko gidoi bikaina baizik. Almodovarrek ere poztan gara, nahiz eta aurki bere amarekin ere akordatu garen. Zarama artean abandonatutako Oscarrak Hollywooden metafora bihurtu zitekeen sari banaketaren bezperan, zinez. Sasoiak aldatuz doazela dirudi, ordea. Zorionez. Spacey jauna ez baita amets amerikar sinesten ez duen bakarra dagoeneko.